


Gasteizko hegoalderako egiturazko antolamendua

HAPOaren berrikuspen partziala Armentia eta Goikolarra artean

Azalpena

2025/2026 ikasturtean Gasteizen garatuko da udalerriaren eskala egituratzailerak lantzeko Hirigintza VI ikasgaiko praktika. Hiriko hegoalde osatugabearen zati nagusia proposatzen da — Armentiatik Goikolarra auzora doana —, ikasleek taldeka —launaka edo bosnaka— eremu zehatz bat mugatzeko eta bertan antolamendu berri bat egiteko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zehaztasun-ekalan.



Gorritz, Armentiatik (mendebaldean) Goikolarra auzora (ekialdean) doan Gasteizko hegoaldeko eremu gutxi gorabeherakoa (320 ha-ko azalera ingurukoa). Urdinez dagoen eremu handiago ere landu liteke, nahi izanez gero.

Antolamendu berrirako erabilera egokienak ikasleek erabakiko dituzte, eremuaren azterketaren ondorioz. Antolamendua handitik txikira definitzea gomendatzen da, sektore berrien mugaketatik¹ eta sistema orokorren diseinutik hasiz (kale nagusiak, parke nagusiak, ekipamendu handiak...). Eta, amaieran, kalifikazio xehatua.

¹ Orientazio gisa, Gasteizko Salburuko eta Zabalganako 14 bizitegi-sektoreen azalerak 15 ha eta 70 ha bitartekoak izan ziren. Batez bestekoa 36 ha-koa izan zen.

Hegoaldeko eremuaz Ramón López de Lucio hirigileak 2004an idatzitakoa [1] irakurtzea gomendatzen da (bera izan zen 1986ko HAPOa egin zuenetako bat). Izan ere, besteak beste bere ideiei jarraikiz, eremuaren zati esanguratsu batean (100 ha inguru) hiri-parke handi bat egiteko asmoa dago aspalditik, Larragorri izeneko [2], proiektua oso definituta ez badago ere. Gaur egun, parke horretako urmael nagusia ari dira eraikitzen [3], baina beste guztia ez dago erabat ziurtatuta egingo denik. Beraz, parkea erabat alda liteke —urmaela eraikitzen ari direla kontuan hartuz—, ondo justifikatuz gero.



Larragorri izeneko parkearen diseinua, 2018ko “2025 Estrategia” delako dokumentuan [2].

2025eko amaieran onetsi den HAPO berrian egin diren proposamenak ere [4] alda litezke.

Eraikigarritasunak ere libreak dira, beti ere 2006ko Lurzoru Legeak [5] eta haren 2025eko garapen-dekretu berriak [6] baimendutakoaren barruan (eraikigarritasun gehienezko eta gutxienekoa, babes publikoko etxe kopurua, espazio libreak, ekipamenduak...).

Emateak

Lehen ematea (2026/2/18 2026/2/23): Azterketa eta Helburuak:

- 1.- Aukeratutako eremuaren egungo egoeraren hirigintza-azterketa egin (hiriarekiko loturak, erabilerak, erabili gabeko partzelak eta eraikinak, arauak...).
- 2.- Antolamendu berria egiteko eremu zehatza mugatu (irudian gorritz dagoen eremua aldatu daiteke).
- 3.- Antolamendu berrirako helburu nagusiak zerrendatu, bai idatziz bai grafikoki (nahi bada, eskemen bidez).

Bigarren ematea (2026/3/23): Antolamendua:

- 4.- Antolamendu berriaren definizioa: bilatzen den irudi orokorra, oinean eta hiru dimentsioetan...
- 5.- Antolamendu berriaren hirigintza-eremu, sistema orokor eta kalifikazio global gutxi gorabeherakoak.

Hirugarren (eta azken) ematea (2026/5/11): Plana:

6.- Aurreko emateetako edukia, osatua. Bereziki, irudi orokorra, hirigintza-eremuak, sistema orokorrak, kalifikazio globalak eta eraikigarritasunak.

7.- Antolamendu-xehatuak egiteko helburuak eta irudi orokorrak edo eskemak.

8.- Lortu nahi den emaitzarako bestelako hirigintza-ordenantza edo -arauak.

Hiru emateetarako formatua:

Hiru emateak paperean zein PDF —ez oso “pisutsu”— moduan (USB bidez, unean utzi eta itzuliko dena). izango dira. Printzipioz, aurkezpen publikoetan azalduko dira.

Hiru emateetako paperen tamaina librea da (DIN A2 edo DIN A3, ahal bada), baina DIN A4ra tolestuta emango dira.

Informazio grafikoa eta idatzia planoetan uztartzea gomendatzen da, ahalik eta modu grafikoen eta sintetikoenean.

Kartografia

Araba osoko plano bektorialak <https://geo.araba.eus/eu/> webgunetik jaitsi daitezke, hainbat formatutan, dxf-ak barne (Gasteizkoak bakarrik daude 1:5000 eskalako xehetasunarekin).

Katastroko planoak (zatika) hemendik jaitsi daitezke, dxf-ak barne: <https://catastroalava.tracasa.es/> .

Geoeuskadi webgunetik ere shp formatuko kartografia bektoriala jaitsi daiteke, ondoren GIS programa batekin dwg formatura pasa daitekeena: <https://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/eu/> .

Bestela ere, Gasteizko dwg plano bat (garbitu behar dena) hemendik jaitsi daiteke: <https://www.ehu.eus/hirigintza/gasteiz.rar> (19,2 MB).

Erreferentziak

[1] López de Lucio, Ramón (koord), 2004: “Condicionantes, bases y directrices para la ordenación urbanística y la puesta en valor de los recursos naturales en la zona sur de la ciudad de Vitoria-Gasteiz. Síntesis, noviembre 2004”: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/82/55/48255.pdf> .

[2] Larragorri izeneko parkearen diseinua, 2018ko “2025 Estrategia” delako dokumentuan: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/16/04/81604.pdf> .

[3] Urmaelaren proiektua, URA agentziarena: <https://www.uragentzia.euskadi.eus/gasteizko-udalerrian-batan-eta-zapardiel-ibaien-uholdeetatik-babesteko-proiektua/webura00-contents/eu/> .

[4] HAPO berriaren dokumentua: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u_67fe2df4_19b26054494_35bb

.

[5] https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/textosconsolidados/200603776_vigente.pdf (2025eko abendu azken aldaketak ikusteko, gaztelaniazko bertsiora jo: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17400>). Bereziki “Kopuruak eta estandarrak” kapituluaren datuak bete beharrekoak (77. artikulutik 81. artikulura).

[6] 45/2025 Hirigintza-estandarren Dekretu berria: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/03/2501050e.pdf> .

Gasteizen, 2026ko otsailaren 2an
Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño